

KONTSERBATORIOA (GRADU PROFESIONALA)

2020-2021 ikasturteko informazio orokorra

Leioa, 2020ko ekainaren 29a.

2020-2021 ikasturtea 2020ko irailaren 1ean hasiko da; eskolak, aldiz, hilaren 14an (lehen eskola-eguna). Horregatik, **GRADU PROFESIONALEAN** matrikula egin duten ikasle guztiei eragiten dien ordutegiei eta taldeei buruzko informazioa ematen da.

- **TALDEKAKO IRAKASGAIEN ordutegiak (teorikoak eta instrumentalak)** jarrita daude. CentrosNET webgunean ikusteko modua dago, erabiltzailea (ikaslearen espediente-zenbakia) eta pasahitza (NANa letrarik gabe) sartu eta gako pertsonala gehituz. Guraso edo ikasle gisa sartzeko aukera dago.
- **BANAKAKO IRAKASGAIEN ordutegiak (instrumentu nagusia, osagarria eta errepertorioa piano-jotzaile laguntzailearekin)** irakasleekin adostuko dira irailean, aurrerago adieraziko diren egunetan.

Irailetik aurrera, eskolak hasi aurretik, ikasleek, edo haien legezko arduradunek, adingabeak badira, taldekako irakasgaietako irakasleekin biltzeko aukera izango dute zalantzak argitzeko edo aldaketarik egin daitekeen aztertzeko. Horretarako datak hauek dira:

IRAKASGAI TEORIKOAK

2020ko irailaren 2a (asteazkena) eta 3a (osteguna), 15:30ean.

1. **Akonpainamendua (Pianoa), Analisia, Harmonia.** 33 gela. Iratxe Sáez irakaslea.
2. **Akonpainamendua (Pianoa).** 18 gela. Mariano Santamaría irakaslea.
3. **Akonpainamendua (Akordeoa y Gitarra).** 21 gela. Txaro Martín irakaslea.
4. **Analisia. Konposizioa eta Informatika.** 29 gela. Margarita Lorenzo irakaslea.
5. **Historia.** 28 gela (liburutegia). Teresa García irakaslea.
6. **Musika Hizkuntza.** 30 gela. Nieves Sáenz de Buruaga irakaslea.

IRAKASGAI INSTRUMENTALAK

TALDEA

2020ko irailaren 3a (osteguna), 16:30ean.

Akordeoi, Gitarra, Perkusio, Piano y Saxofoi espezialitateei eragiten die.

1. Akordeoi-taldea: 1.a, 2.a, 3.a, 4.a. 21 gela. Txaro Martín irakaslea.
2. Gitarra-taldea: 1.a, 2.a, 3.a, 4.a. 6 gela. Juan Carlos Lorenzo irakaslea.
3. Perkusio-taldea: 3.a, 4.a, 5.a, 6.a. 37 gela. Elur Arrieta irakaslea.
4. Piano-taldea: 1.a, 2.a, 3.a, 4.a. 27 gela. Laura Nardi irakaslea.

Saxofoi-taldea: bere taldea Leioa Big Band izango da. Auditoriuma. Asteazkenean, 19:30ean. Oskar García Castresana irakaslea.

GANBERA-MUSIKA

2020ko irailaren 3a (osteguna), 17:30ean.

Espezialitate guztiei eragiten die

1. Gradu Profesionala: 3.a eta 4.a. 12 gela (salbuespena: Akordeoia) Laura Nardi irakaslea.
2. Gradu Profesionala: 5.a eta 6.a. 29 gela (salbuespena. Akordeoia, Gitarra). Margarita Lorenzo irakaslea.
3. Akordeoia eta Gitarra, Gradu Profesionala: 3.a, 4.a, 5.a, 6.a. 21 gela. Profesora Txaro Martín irakaslea.

BANDA, KORUA, ORKESTRA.

<i>Banda, Koru eta Orkestra taldeen ordutegiak esleitu dira.</i>
--

<i>Ikasle bakoitzak CentrosNET webguneko bere atalean ikusiko ditu.</i>

BANAKAKO IRAKASGAIAK

INSTRUMENTU NAGUSIA / OSAGARRIA

PIANO-JOTZAILE LAGUNTZAILEA

Zerrendak 2020ko irailaren 4an, OSTIRALA, 16:00etatik aurrera jarriko dira ikusgai, eta agertzen diren egun eta ordu horietan banakako irakasgaien ikasle bakoitzari hitzordua emango zaio ikasturteko eskola-ordutegia irakasleekin adosteko.

Joatea derrigorrezkoa da.

Zerrendak V letratik abiatuta ordenatuko dira, Hezkuntza Saileko Langileak Kudeatzeko zuzendariaren 2020ko otsailaren 7ko Ebazpenari jarraituz.

2020ko irailaren 7an, ASTELEHENA, eta 8an, ASTEARTEA, banakako irakasgaien ikasleek, hala nola Instrumentu Nagusia eta Errepertorioa piano-jotzaile laguntzailearekin irakasgaiak, ikasturtearen ordutegia zehaztuko dute dagokien irakaslearekin batera, honako egutegi honen arabera:

2020ko irailaren 7a, astelehena. 16:00etatik aurrera.

1. Akordeoia.
2. Kantua (nagusia eta osagarria).
3. Hari-instrumentuak (nagusia eta osagarria).
4. Haizei-instrumentuak (nagusia eta osagarria).

2020ko irailaren 8a, asteartea. 16:00etatik aurrera.

1. Gitarra (nagusia eta osagarria).
2. Perkusioa.
3. Pianoa (nagusia eta osagarria).
4. Piano-jotzaile laguntzailea (30 minutuko eskola astean).
Kantuari, Hari- eta Haize-instrumentuei eta Perkusioari eragiten die.

Ordutegiak antolatzeke zailtasunak direla eta, honako kontu hauek hartu behar dira aintzat:

1. **Ikasleek, edo haien legezko arduradunek, adingabeak badira, gutxienez hiru aukera eskainiko dituzte, egun eta ordu-tarte ezberdinetan.**
2. **Instrumentu-ordua hartu aurretik, ikasleek aldeztu aurretik jakin beharko dute beren espezialitateari dagozkion taldekako irakasgaien ordutegia.**

Ikasleek, edo haien legezko arduradunek, adingabeak badira, beren taldekako ordutegien informazio osoa badaukate, instrumentuko irakaslearekin edo errepertoristarekin harremanetan jar daitezke beren posta elektronikoko korporatiboaren bidez, informazio hori helarazteko eta, horrela, ordutegiak egiten laguntzeko.

Zalantzarik edo galderarik izanez gero, jarri harremanetan Idazkaritzarekin 2020ko uztailaren 15a baino lehen.

Opor on eta agur bero bat.

Informazio gehiago eskuratzeko: www.conservatorioleioa.com